

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako hamaika institutueta 700 ikasle inguruk “Irakurketaren Epizentroak” proiektuan parte hartuko dute

Epaimahai taldeko kide izanen dira eta gaztelaniaz gazteentzako argitaratutako eleberririk onena aukeratuko dute

Asteartea, 2018.eko urriak 16

Nafarroako 11 institutueta DBHko 1. 2. eta 3.º mailako eta Batxilergoko 1. mailako 647 ikasleek, Liburutegi Publikoek irakurketa sustatzeko sortutako “Irakurketaren Epizentroak” proiektuan parte hartuko dute. Zehazki, Martzila, Barañain, Atarrabia, Burlata, Zizur Nagusia eta Iruñeko Basoko, Julio Caro Baroja, Mendillorri, Ochoa de Olza, Biurdana eta Iturramako BHIko ikasleek.

Ikasleak, irakasle, gazte-irakurketa klubetako eta 20 bat liburutegi publikoetako erabiltzaileekin batera, 2017an gaztelaniaz argitaratutako eleberririk onena aukeratzeko epaimahaiko kide izango dira.

Proiektuan parte hartuko dutenek hiru lan finalista irakurriko dituzte: Maite Carranzaren “Una bala para el recuerdo”, Anna Mansoren “Lo del abuelo” eta Fernando Lalanaren “El Matarife”. Parte-hartzaileek, 700 inguru, Nafarroako liburutegi publikoetan elkartuko diren irakurketa klubetan banatuko dira bakoitzak irakuri duen eleberririk onenaren inguruan eztabaidatu eta “Irakurketaren Epizentroak” ekimenaren lehen edizioko irabazlea aukeratzeko.

Liburutegietan egingo diren topaketak abenduaren 13 eta 20an, otsailaren 14 eta 21ean eta maiatzaren 4 eta 9an egitea aurreikusten da. Saria egilearekin egingo den topaketa batean emango da ekaineko lehen hamabostaldian.